

PUBLIPOSTA  
PUBLICORREO

DESGAITUEI EGUNEROKO  
BIZITZAKO  
ESPARRUETAN LAGUNTZEKO  
BALIABIDE EKONOMIKOEI  
BURUZKO GIDA

V. LIBURUKIA: ERAIKINEN  
IRISGARRITASUNA  
HOBETZEKO LAGUNTZAK  
ETA BESTE LAGUNTZA  
BALIAGARRI BATZUK



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

eginaren  
**eginez**

# Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak, eraiki- nen irisgarritasuna (elementu pribatiboetan eta komunetan) hobetzeko

**1.- Kontzeptua:** Etxebizitzak (eta etxebizitzei lotutako trastelekuak eta garajeak) nahiz nagusiki bizitoki-erabilera duten eraikinak birgaitzeko jarduketetarako laguntzak: mailegu kualifikatuak edota zuzeneko laguntza ekonomikoak (itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak) ematea.

(Nagusiki bizitoki-erabilera duten eraikinak dira birgaitu ondoren azalera erabilgarriaren 2/3 gutxienez bizitoki-erabilerarako dutenak, beheko solairua kontuan hartu gabe).

Babestutako obrak dira, besteak beste, etxebizitzak eta haietarako sarbideak irisgarritasun-esparruan indarrean dagoen araudiari egokitzeko obrak (igogailuak jartzea; sarbideak berritzea, oztopo arkitektonikoak kenduz eta bide publikotik sartzeko ibilbide egoki bat sortuz; etxebizitzaren barruko berrikuntzak, oztopo arkitektonikoak kentzeko; eta abar).

**2.- Onuradunak eta baldintzak:** Onuradunak dira birgaitzeko obrak egingo diren etxebizitzaren jabea, errentaria, usufruktuduna edota hura erabiltzeko beste edozein titulu duten pertsonak.

(Babestutako obrak egingo dituen pertsona birgaitzearen titulartzat hartuko da, laguntzen ondorioetarako. Birgaitze-obren titularra jabea ez bada, beharrezkoa izango da jabearen baimena aurkeztea, bai eta birgaitze-obrak ordainduko dituenari buruzko akordioa ere).

Obrak elementu komunetan egin behar badira, laguntzak eskatzeko izapidea jabeakideen komunitatearen legezko ordezkariak egin behar du.

Nagusiki bizitoki-erabilera duten eraikinetan dauden lokalen jabeek eskubidea izango dute eraikinaren elementu komunetako obrak egiteko laguntzetan parte hartzeko, obren ordainketan duten partaide-tza-kuotarekiko proportzionalki.

Obrak jarduketa babestutat har daitezen, baldintza hauek bete behar dira:

- Laguntzen onuradunek ez gainditzea legez ezarritako diru-sarrerren mailak, eta ez egotea laguntza publikoak lortzeko aukeraz gabetzen duen ezein zigorren pean. Horrez gain, diru-laguntzak eskatzeko, oro har onuradunek pertsona fisikoak izan behar dute (lokalen kasuan izan ezik).
- Obrek obretarako udal-baimena izatea.
- Oro har, etxebizitza birgaitzearen titularraren ohiko bizileku iraunkorra izatea.

- Eraikinak 10 urtetik gorako antzinatasuna izatea (salbuespen-kasu batzuetan izan ezik; besteak beste, desgaitasuna duten pertsonak erabiltzeko etxebizitzaren egokitzapen-obra), eraikina hirigintza aldetik egokituta egotea (legez ezarritako salbuespenetan izan ezik) eta ez egotea aurrigoeran. Horrez gain, eraikina ez badago "egitura eta eraikuntza aldetik egokituta", jarduketa babesgarriztat hartuko da egokitzapen horiek egiteko obrei dagokiena soilik.

(Eraikin bat egitura eta eraikuntza aldetik egokituztat hartzen da zenbait baldintza betetzen ditutenean; besteak beste, bide publikotik edo eremu publikotik sarbide independentea izatea eta ez izatea etxebizitzetara libreki sartzea eragozten duen oztoporik).

- Irisgarritasun unibertsalerako obra badira (familia bakarreko etxebizitzak edota etxebizitza kolektiboetako elementu komunak), EIT<sup>1</sup> izatea, laguntzen eskabidea egin aurretik.
- Etxebizitzetako bizileku-eremua handitzeko eraikuntza berrien obra badira, oro har obra egin ondoren etxebizitzaren azalera erabilgarriak ez gaintzea 90 m<sup>2</sup>erabilgarriak.
- Egin beharreko obren aurrekontua gutxienez 1.000-€koa izatea etxebizitza eta lokaleko, irisgarritasunerako obra badira izan ezik.

**3.- Jaso daitekeen zenbatekoa:** Diru-laguntzaren kasuan, zenbatekoa babesaren gehieneko aurrekontuaren ehuneko bat izango da, onuradunaren bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera. Maitasun kualifikatuaren kasuan, babesaren gehieneko aurrekontuaren % 100 izan daiteke (Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio batzuek emandako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak kenduta).

Babesaren aurrekontuan sartzen dira obra egiteko kostuak (barnean hartuta obraren proiektua egin duen teknikariaren ordainsariak eta EITrenak, tasak eta beste prezio publiko batzuk, BEZ gabe). Babesaren aurrekontua, gehienez, honen berdina izango da: etxebizitzaren azalera erabilgarri konputagarriaren (barnean hartuta trastelekua eta garajea) eta laguntzaren eskaera egin den datan indarrean dagoen (etxebizitza edo eraikina dagoen udalerrirako) erregimen orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren salmentarako moduluaren arteko biderkadura.

(Etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria hau izango da: azalera erabilgarri erreala, gehienez ere 90 m<sup>2</sup>erabilgarri konputagarri dituen, edota 120 m<sup>2</sup>erabilgarri, jabeak familia ugariak badira. Garajeen eta trastelekuen gehieneko azalera erabilgarri konputagarria 30 m<sup>2</sup>erabilgarri izango da).

Eraikin baten irisgarritasunerako elementu komunak birgaitzeko obren kasuetan, babesaren aurrekontuaren % 5eko diru-

<sup>1</sup> €EIT: Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa

laguntza emango zaio zuzenean jabeekideen komunitateari, gehienez ere 2.000 eurora artekoa (edo 3.000-€ra artekoa, kasu batzuetan).

**4.- Eskabidea eta dokumentazioa:** Oro har, eskabidea Eusko Jaur-laritzaren Lurralde Ordezkaritzetako Erregistro Orokorrean egin behar da (legez ezarritako kasuetan, dagokion Birgaitzeko Hirigintza Elkartearen egin behar da). Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Laguntza-eskabidearen eredu ofiziala/ak, kontuan hartuta etxebizitza batean edo elementu komunetan egiteko obrak diren.
- Obren deskribapena, euskarri grafikoarekin, eta aurrekontua, sailetan xehakaturia (neurketa eta unitateko prezioa adierazita) eta obrak egiteko epea zehaztuta; eta, hala badagokio, teknikari eskudunak sinatutako proiektua.
- Eskatzailearen identitatearen, errentaren eta familia-egoeraren egiaztagiriak, eta eskatzaileak eskatu dituen edo eman zaizkion beste laguntza batzuei buruzko egiaztagiriak.
- Laguntza-eskabidearen xede den birgaitu beharreko etxebizitza erabiltzeko eskubidearen tituluaren egiaztagiria (eta, hala badagokio, etxebizitza hori onuradunaren ohiko bizileku iraunkorra dela adierazten duen egiaztagiria). Birgaitzearen titularra etxebizitzaren jabea ez bada, obrak egiteko jabearen baimena eta obren kostua ordainduko duenari buruzko akordioa).
- EITren txostena, galdagarria den kasuetan (laguntzaren eskabidea egin aurretik egin behar da).

**5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak.** Laguntzak bateragarriak dira xede berarekin eman daitezkeen beste laguntza batzuekin, baina haien zenbatekoak guztira ezin izango du gainditu diruz lagundutako obren guztizko kostua (bestela, emandako laguntzaren zenbatekoa murriztuko da, dagokion kopuruan).

**6.- Oharrak:** Obrak laguntza emateko ebazpena jakinarazi den datatik sei hilabeteko epean gehienez hasi behar dira, eta diruz lagundu den proiektuan zehaztutako baldintzetan eta epeetan egin behar dira. Obrak amaitutakoan, egin diren lanak justifikatu behar dira, xehetasunez zehaztuz amaierako zenbatekoa, eta jatorrizko fakturak nahiz egindako obraren dokumentazio grafikoa aurkeztuz, bai eta, hala badagokio, obra-bukaerako ziurtagiria ere; horrez gain, aurkeztu beharrekoak izango dira obretarako baimena, udal-tasen ordainketaren egiaztagiria eta, hala dagokion kasuetan, instalazioen ziurtagiriak eta zerbitzuan jartzeari dagokion dokumentazioa.

Obrak egin bitartean sailen kostua aldatzen bada (aurrekontuko kontzeptuak eta sailak aldatu gabe), emandako ebazpena aldatuko da, betiere kostuaren murrizketa gertatu bada, eta kostua handitzen bada, berriz, hasierako kostua gutxienez % 10ean gainditzen badu. Obrak egin bitartean aurrekontuko kontzeptuak edo sailak aldatzen badira, eskabide berri bat izapidetu beharko da.

Birgaitzeko diru-laguntzak jaso dituzten etxebizitzak edo lokalak ezin izango dira borondatez inter vivos transmititu 5 urteko epean, obra-bukaerako ziurtagiriaren datatik aurrera, baldin eta aurrez ez bada egiaztatzen jasotako laguntzak itzuli direla (itzultzeko unean eguneratuta eta interesekin); ondorio horretarako, Jabetza Erregistroan jasoko da jabetzaren mugapen xedatzaile hori. Mugapen xedatzaile horrek ez die eragiten eraikinetako elementu komunak birgaitzeko obrei.

Laguntzak urte bakoitzerako aurrekontu-kreditua agortu bitartean izapidetuko dira. Edonola ere, baldintza guztiak bete arren laguntza baliabide ekonomiko ezagatik ukatu den kasuetan, hurrengo ekitaldi ekonomikoan eman ahal izango dira, aurrez eskabidea eginda.

## **Beste administrazio batzuek emandako laguntzak, eraikinen irisgarritasuna (elementu pribati-boetan eta komunetan) hobetzeko**

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak ere ematen dituzte xede horretarako laguntzak. Arabako Foru Aldundiak ematen dituen laguntzei dagokienez, ikusi gida honetako IV. liburukiko atal hau: "Desgaitasun-egoera aitortuta duten pertsonentzako banakako laguntzak". Atal horretan, xede horretarako Gasteizko Udalak ematen dituen laguntzak azaltzen dira.

**1.- Kontzeptua:** Etxebizitzak eta bizitoki-eraikinak birgaitzeko jarduketetarako laguntzak, interesik gabeko hipoteka-mailegu izaerakoak; mailegua eman denetik 10 urteko epean etxebizitzaren transmisiorik eginez gero, mailegua itzuli beharko da, eta epe horretan etxebizitzaren jabetzari eusten bazaio, berriz, automatikoki itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bihurtuko da.

(Bizitoki-eraikinak dira azalera erabilgarriaren 2/3 gutxienez bizitoki-erabilerarako dutenak, beheko solairua kontuan hartu gabe).

Babestutako obrak dira, besteak beste, irisgarritasun unibertsalerako obrak eta bide publikotik etxebizitzetarako ibilbide egokia bermatzeko oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak; hirigune historikoko eraikinen kasuan, jarduketa babesgarriak dira, halaber, eskailerak ken-

tzeko obrak. Ez dituzte barnean hartzen eraikinen edota instalazioen ohiko mantentze-lanak.

**2.- Onuradunak eta baldintzak:** Laguntzen onuradunak dira legez ezarritako gehieneko diru-sarreraren baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren jabeak.

Obrak elementu komunetan egin behar badira, laguntzak eskatzeko izapidea jabeekideen komunitatearen legezko ordezkariak egin beharko du.

Bizitoki-eraikinetan dauden lokalen jabeek eskubidea izango dute eraikinen elementu komunetako obrak egiteko laguntzetan parte hartzeko, haietan duten partaidetza-kuotarekiko proportzionalki.

Ez dira babesgarritzat hartuko 1.000-€-ko baino gutxiagoko aurrekontua duten obrak.

**3.- Jaso daitekeen zenbatekoa:** Babeserako gehieneko aurrekontuaren ehuneko bat izango da, onuradunaren bizikidetzaren sarreraren arabera (ez dira ordainduko 100 eurotik beherako zenbatekoa duten laguntzak).

Babesaren aurrekontuan sartzen dira obrak egiteko kostuak (barnean hartuta obraren proiektua egin duen teknikariaren ordainsariak, tasak eta beste prezio publiko batzuk, BEZ gabe). Babesaren aurrekontua, gehienez, honen berdina izango da: etxebizitzaren azalera erabilgarri konputagarriaren (barnean hartuta trastelekua eta garajea) eta laguntzaren eskaera egin den datan indarrean dagoen Gasteizko erregimen orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren salmentarako moduluaren arteko biderkadura.

(Etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria hau izango da: azalera erabilgarri erreala, gehienez ere 90 m<sup>2</sup>erabilgarri konputagarri dituen, edota 120 m<sup>2</sup>erabilgarri, jabeak familia ugariak badira eta benetan etxebizitzan bizi badira).

Horrez gain, Gasteizko hirigune historikoko bizitoki-eraikinetan, eraikinen babes-maila dela-eta, edo arkitektura- edo eraikuntza-elementuak nahiz elementu apaingarriak direla-eta, berrikuntzan edota teknika eta material tradizionaletan espezializatutako eskulana behar bada, berriztapenerako edo kontserbaziorako obra-unitateen balioaren % 20 gehienez diruz lagunduko da.

**4.- Eskabidea eta dokumentazioa:** Eskabidea Etxebizitzako Udal Bulegoetan egin behar da, eta dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Laguntza-eskabidearen eredu ofiziala/ak (kontuan hartuta obrak etxebizitza batean edo elementu komunetan egingo diren, bai eta

etxebizitza/eraikina hirigune historikoan edo hiriko beste eremu batean dagoen).

- Obren deskribapena, euskarri grafikoarekin, eta aurrekontua, sailetan xehakaturia (neurketa eta unitateko prezioa adierazita) eta obrak egiteko epea zehaztuta; eta, hala badagokio, teknikari eskudunak sinatutako proiektua. (Zurezko egitura duten eta 50 urteko edo gehiagoko antzinatasuna duten eraikinetan etxebizitzaren barruan berrikuntzak egin behar badira, eta lanek sukaldeei eta bainugelei eragiten badiete, horrez gain Egituraren Ziurtagiria aurkeztu behar da, goi-mailako arkitekto batek igorria, egin beharreko obren justifikazioa jasotzen duena eta esku-hartzea hark gainbegiraturia egingo dela berariaz adierazten duena).
- Eskatzailearen identitatearen, errentaren eta familia-egoeraren egiaztagiriak, laguntzaren xede den birgaitu beharreko etxebizitzaren jabetzaren egiaztagiria, eta xede berarekin onuradunak eskatu dituen edo eman zaizkion beste laguntza batzuen egiaztagiriak; Udalarekin zorrik ez izatearen egiaztagiria eta onuraduna diru-laguntzak jasotzeko eskubideaz gabetzen duen ezein debekuren pean ez dagoela adierazten duen erantzukizun-aitorpena.
- Obrak elementu komunean egitekoak badira, jabetzaren komunitateak obrak egitea adostu duela adierazten duen egiaztagiria eta EIT txostena (laguntzaren eskabidea egin aurretik egin behar da).
- Obren guztizko aurrekontua 10. 000 eurotik gorakoa bada (BEZ gabe) gutxienez hiru enpresaren eskaintzak aurkeztu beharko dira, obrak egiteko zein aukeratu den zehaztuko da, eta alderdi ekonomikotik onuragarriena dena aukeratu ez bada, berariaz memoria batean justifikatu beharko da egingo dako aukera.

**5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak.** Laguntzak bateragarriak dira xede berarekin eman daitezkeen beste laguntzekin, baina zenbatekoak guztira ezin izango du gainditu diruz lagundutako jarduketaren kostuaren % 80.

**6.- Oharrak:** Obrak laguntza emateko ebazpena jakinarazi den datatik sei hilabeteko epean gehienez hasi behar dira, eta diruz lagundu den proiektuan eta obretarako udal-baimenean zehaztutako baldintzetan eta epeetan egin beharko dira. Obrak amaitutakoan, egin diren lanak justifikatu behar dira, xehetasunez zehaztuz amaierako zenbatekoa, eta jatorrizko fakturak nahiz egindako obraren dokumentazio grafikoa aurkeztuz; horrez gain, aurkeztu beharrekoak izango dira obretarako baimena, eta, hala badagokio, lehendabiziko okupazioarena, bai eta instalazioen ziurtagiriak eta zerbitzuan jartzeari dagokion



dokumentazioa ere. Onartutako laguntzen zenbatekoa diruz lagundu diren obrak erabat egin direla egiaztatu ondoren ordainduko da (salbuespen gisa, obren zenbatekoa zuzenean kontratistari ordaintzea adostu ahal izango da).

Onuradunek betebeharra dute laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabarretan gertatutako aldaketak Etxebizitzako Udal Bulegoari jakinarazteko. Obrak egin bitartean laguntza emateko aintzat hartutako baldintzak aldatzen badira, edota obraren kontzeptuak edo sailak nahiz laguntzaren titularraren identitatea aldatzen badira, beharrezkoa izango da beste ebazpen bat. Obren kostuak handitzen badira, baina igoera % 10 baino gutxiago bada, ez da ebazpena berraztertu beharko.

Laguntzak urte bakoitzeko deialdiko aurrekontu-kreditua agortu bitartean izapidetuko dira.

## Beste laguntza baliagarri batzuk

### a) Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legetik eratorritako laguntzak:

- **Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE).** Aldizkako prestazio ekonomiko bat da, bizikidetzaren unitate bateko kide izanik oinarritzko beharrak asetzeko nahiz gizarteratze-prozesu batetik eratorritako gastuei aurre egiteko nahikoa sarrera ez duten pertsonentzat. Izaera subsidiarioa edo, hala bada, gorkio, osagarria izango du, onuradunari eta haren bizikidetzaren unitateari indarrean dagoen legeriarekin bat dagozkien mota guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoekiko. Ez da bateragarria xede bererako beste prestazio batekin.

[Bi modalitate daude: gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errenta (lan-errentetatik lortutako sarrerarik ez duten eta hileko sarre-ra-maila legez ezarritako gutxieneko zenbatekotik beherakoa duten pertsonentzat), eta lan-sarreraren osagarri den errenta (lan-errentetatik lortutako sarrerak dituzten baina hileko sarrerara-maila legez ezarritako gutxieneko zenbatekotik beherakoa duten bizikidetzaren unitateen sarre-ra-mailaren osagarria).].

- Etxebizitzarako prestazio osagarria. Aldizkako prestazio ekonomiko bat da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitatearen osagarria, prestazio horien titularren ohiko etxebizitzarekin lotutako beharrak asetzeko (halakotzat hartzen dira ohiko etxebizitzaren alokairu-gastuak). Izaera subsidiarioa izango du, eta, hala bada, gorkio, osagarria, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat pertsona titularrari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagozkion ohiko etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko mota guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoekiko.



- **Gizarte-larrialdiko laguntzak.** Aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, bizikidetza-unitate bateko kide izanik gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, eragozteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoiei, ohikoei nahiz apartekoei, aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten pertsonentzat (hala nola ohiko etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko gastuak; bizikidetza-unitateko pertsona baten edo gehiagoren oinarritzko beharrak asetzeko gastuak –jantziak, heziketa eta prestakuntza, eta osasun-arreta–, sistema publikoek beren gain hartzen ez dituztenak; eta abar). Izaera subsidiarioa izango dute, eta, hala badagokio, osagarria, indarrean dagoen legeriarekin bat onuradunari, haren bizikidetza-unitateko edozein kideri edota, hala badagokio, etxebizitza berean bizi diren beste pertsona batzuei dagozkien mota guztietako baliabide eta gizarteratzeko prestazio ekonomikoekiko.

(Diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi modalitateak bateraezina izango dira. Diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein modalitatekoa dela, bateragarria izango da etxebizitzarako prestazio osagarriarekin, eta bateraezina, alokairu-gastuak ordaintzeko ezarritako gizarte-larrialdiko laguntzekin. Etxebizitzarako prestazio osagarria bateraezina izango da etxebizitza-gastuekin lotutako gizarte-larrialdiko laguntzekin, baina bateragarria izango da gizarte-larrialdiko laguntzetako gainerako kontzeptuekin, legez ezarritako baldintzetan. DBE eta etxebizitzarako prestazio osagarria Eusko Jaurlaritzak ematen ditu, Lanbideren bidez, eta gizarte-larrialdiko laguntzak dagokion Udalak ematen ditu).

## **b) Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginetik eratorritako laguntzak**

- **Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntza, eta hirugarren baten laguntzagatikoa.** Jada laguntza horien onuradun izanik oraindik ere horiek emateko legez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, ez badute aukeratu jasotzea Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren arabera ez den pentsioa edota ardurapeko seme-alabak edukitzeagatikoa laguntza. (Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko diru-laguntzaren onuraduna besteren kontura kontratatzen badute, edota norberaren kontura lanean hasten bada, aipatutako diru-laguntza hori jasotzeko eskubidea etenda geratuko da, eta haren lan-kontratua azkentzean edo lan-jarduera egiteari uztean automatikoki berreskuratuko du eskubide hori).
- **Birgaitze profesionalerako diru-laguntza.** Legez ezarritako birgaitze profesionalerako prestazioak jasotzen dituzten desgaituentzat, horretarako ezarri zaien banakako programa egiteko beharrezko dutenean gastu gehigarriak egitea ostatu hartzeko, jantokietarako edo garraiorako.

- **Mugikortasunerako eta garraio-gastuak ordaintzeko laguntza (Arabana, taxi-bonua).** Desgaitasuna duten pertsonentzako prestazio ekonomikoa (bonuak ematearen bidez), ohiko etxebizitzatik kanpora egin beharreko lekualdatzeek eragindako gastuak ordaintzeko, desgaitasuna dela-eta zailtasun larriak badituzte garraiobide kolektiboak erabiltzeko. Onuradunek 12 urtetik 65era arteko adina izan behar dute (eta gehienez ere 70, berritzeko); taxi-bonuaren eskabidea egin duten udalerrian errolatuta egon behar dute, eskabidea egin baino urtebete lehenago gutxienez; garraiobide kolektiboak erabiltzeko eragozpen larriak dakartzkien galera funtzionalak edo anatomikoak edota funtsezko deformazioak izan behar dituzte, % 33ko edo gehiagoko mailan, legez ezarritako baremoaren arabera; eta ez dute ezinduta egon behar ohiko etxebizitzatik kanpora lekualdatzeak egiteko.

(Gasteizen, gainera, beste baldintza hauek daude ezarrita: onuradunak ez izatea ibilgailu egokiturik; onuradunak ez jaso izana laguntzarik ibilgailua erosteko edo egokitzeko; eta onuradunak ez eskatu izana matrikulazio-zerga ordaintzetik salbuets dezaten, desgaitasun-egoera aitortua izateagatik).

### c) Beste zenbait laguntza

- **Etxebizitzaren alokairurako osagarria, ordaindutakoaren arabera ez den pentsioaren titularrentzat.** Pentsioaren osagarria, etxebizitzarik jabetzan ez duela eta ohiko bizilekua alokatu duen etxebizitza bat duela egiaztatzen duen pentsiodunarentzat, jabearen bikotekide edo izatezko bikote nahiz hirugarren mailara arteko ahaidea izan gabe.
- **Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioak.** Aldizkako prestazio ekonomikoak, adin handikoak izateagatik edo desgaitasuna izateagatik lanik egin ezin duten eta bizitzako oinarritzko beharrak asetzeko beste sarrerarik ez duten pertsonen baliabide ekonomikoak emateko. Onuradunak ALHn<sup>2</sup> errolatuta egon behar du, ez ditu izan behar bizitzako oinarritzko beharrak asetzeko sarrerak (norberarenak edota elikagaiak emateko betebeharra duten ahaideenak), eta 65 urte beteta izan behar ditu, zahartzaroko prestazioak eskuartzeko. Eskabidea GOFEn<sup>3</sup> edo dagokion udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuan egin behar da. (Zenbatekoa oso gutxi da, ez baita urte askoan eguneratu).
- **Tarifa berezi merkeagoak** mugikortasun mugatua duten pertsonentzat, Gasteizko hiri-garraibide publikoetan (tranbia eta hiri-autobusak).

<sup>2</sup> €ALH: Arabako Lurralde Historikoa

<sup>3</sup> €GOFE: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

- **Zerga-salbuespenak edota -kenkariak**, ibilgailuen matrikulazio-zergan eta PFEZen<sup>4</sup>.

## LOTUTAKO LEGEDIA

- Abenduaren 30eko Eusko Jaurlaritzaren 317/2002 Dekretua, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babes-tuei buruzkoa (EHAA, 249 zk, 2002/12/31koa); eta 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa (EHAA, 18 zk, 2007/01/25ekoa), eta hura aldatzen duen araudia (azkena, 2014/11/26ko Agindua, EHAA, 229 zk, 2014/12/01ekoa).
- **Hirigune historikoko etxebizitzak eta bititoki-eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen araua eta haren aldaketak (ALHAA, 110 zk, 2012/09/24koa; 118 zk, 2012/10/15ekoa; eta 52 zk, 2014/05/12koa); Gasteizko etxebizitzak eta bititoki-eraikinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen araua eta haren aldaketak (ALHAA, 118 zk, 2012/10/15ekoa; eta 52 zk, 2014/05/12koa); eta diru-laguntzei buruzko udal-ordenantza.**
- 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoa (EHAA, 250 zk, 2008/12/31koa), eta haren aldaketak; maiatzaren 25eko Eusko Jaurlaritzaren 147/2010 Dekretua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa (EHAA, 114 zk, 2010/06/17koa); urtarrilaren 12ko Eusko Jaurlaritzaren 2/2010 Dekretua, etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzkoa (EHAA, 11 zk, 2010/01/19koa); eta urtarrilaren 18ko Eusko Jaurlaritzaren 4/2011 Dekretua, gizarte-larrialdiko laguntzei buruzkoa (EHAA, 27 zk, 2011/02/09koa).
- Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzekoa; otsailaren 1eko 383/1984 Errege Dekretua, apirilaren 7ko 13/1982 Legean, ezinduen gizarteratzeari buruzkoan, jasotako prestazio sozial eta ekonomikoen sistema berezia xedatzen eta arautzen duena; eta Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako zenbait udalen arteko hitzarmenak, taxi-bonuen programa ezartzeko.
- Abenduaren 23ko 22/2013 Legea, 2014 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrena; eta abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretua, Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren ara-

<sup>4</sup> PFEZ: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

berakoa ez den modalitateko pentsioa jasotzen duten pentsiodunentzat etxebizitza alokatzeko pentsioaren osagarria aitortzeko arauak xedatzen dituena (xedapen hori bera jasotzen da 2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuaren 46 artikuluan).

- Maiatzaren 26ko Eusko Jaurlaritzaren 129/1986 Dekretua, adin handiko pertsonentzako eta lanerako desgaituak dauden pertsonentzako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioak arautzen dituena (EHAA, 109 zk, 1986ko ekainaren 5ekoa), besteak beste araudi hauek aldatzen dutena: ekainaren 12ko Eusko Jaurlaritzaren 163/1990 Dekretua (EHAA, 125 zk, 1990ko ekainaren 25ekoa), eta urriaren 1eko Eusko Jaurlaritzaren 511/199 Dekretua (EHAA, 211 zk, 1991ko urriaren 18koa).

ARGITALPEN HAU 2014KO ABENDUAN EDITATU ZEN, ETA DATA HORRETAN INDARREAN ZEGOEN ARAUDIAN OINARRITZEN DA EDUKIA.